

## AZPEITIA / Urretabizkaiaren '3 Mariak' aztertuko dugu solasaldietan

Zahartzaroan gaztetako garaiak gogoratzea ohikoa da, baina ez gaztetan egindako promesei heltzea. Dena den, hori da "3 Mariak" liburuko protagonistek egiten dutena. Gorri, Txuri eta Handik bizi desberdinak izan dituzte, baina badute bizitzaren hasieran, atal zabal bat, komunean. Amaiera ere horrelakoa izango dute?

Libur hori Pako Aristiren gidaritzapean aztertuko dugu datorren 29an 18:30tan Udal Liburutegian. Aurtengo bigarren Literatur Solasaldia izango da, Udal Liburutegiak antolatzen duena.

Solasaldi hauek liburua irakurri edo interesa dutenentzako zabalik daude. Liburua irakurri edo eskuratu nahi dutenek Udal Liburutegira jo behar dute.

### **WEB berria**

Solasaldi horren eta besteetan informazio guztia Literaturzaleen Txokoko webgunean eskuratu daiteke. Webgunea berria da eta oraindik eraikitzen ari gara, dena den, oinarrizko informazioa dagoeneko bertan duzue: [www.literaturtxokoa.com](http://www.literaturtxokoa.com)

Webgunerako, gure jarduerako edo bestelako gomendioak edo proposamenak baditzuez webgunean bertan azaltzen den e-postara bidali ditzazkezue. Baita, informazioa zuzenean zuen e-postan jaso nahi baduzue mailing sistemari esker (e-postara zuen helbidea bidalita).

### **Ebook**

Aspaldian, jendeak gero eta joera handiagoa du liburuak irakurgailu digitaletan, ordenagailutan edo bestelako pantailatan irakurtzeko (mugikorrak, tabletak...). Horretaz ohartuta, gure webean atal berezia sortu diogu Ebook sistemari. Hor aurkituko dituzue esteka interesgarri ugari.

Doako liburuak deskargatzeko, liburu elektronikoak internetez erosteko guneak, liburu elektronikoen irakurgailuak erosteko gomendioak, denda digitalak... Denetarik. Sartu eta bistaratu, ziur zerbait interesgarria topatzen duzula!